

# **SAN VIATOR**

## **GURASO BILERA**

2017/2018

## **AURKIBIDEA**

---

### **1.-MARKO ESTRATEGIKOA**

1.1.-BERRIKUNTZA PROIEKTUAK HAUR HEZKUNTZAN

### **2.-ORGANIGRAMA**

### **3.- ORDUTEGIA**

### **4.-ZERBITZUAK**

4.1.-GOIZEKO UMEEN ZAINTZA ZERBITZUA

4.2.- JANTOKIA

4.3.- LIBURUTEGIA

4.4.- PSIKOLOGIA TALDEA

4.5.- ERIZAINNTZA

4.6.- ATEZAINNTZA

4.7.-GALDUTAKO GAUZAK

4.8.- TESTU LIBURUEN SALMENTA

4.9.- IKASTETXEKO KIROL ARROPAREN SALMENTA

4.10.-GURASO ELKARTEA

4.11.-GURASO ESKOLA

4.12.-INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN KUDEAKETARAKO

ZERBITZUA: ALEXIA

4.13.- UDALEKUAK

### **5.-ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK**

### **6.-HAUR HEZKUNTZAKO PROIEKTUA**

6.1.- PSIKOMOTRIZITATEA

6.2.- PSIKOMOTRIZITATEA/ LAGUNTZA TALDEAK

6.3.- KONSTRUKTIBISMOA

6.4.- MURGILTZE PROGRAMA

6.5.- NOLA JORRATZEN DUGU PROIEKTUA

6.6.- UNITATE DIDAKTIKOAK ETA PROIEKTUAK

6.7.- IRAKURKETA ETA IDAZKETA PROIEKTUA

6.8.- PENTSAMENDU LOGIKO- MATEMATIKORA HURBILTZEA

6.9.- DRAMATIZAZIOA

6.10.- TEKNOLOGIA BERRIAK

6.11.- PSIKOMOTRIZITATE SAIOAK

6.12.- MUSIKAREN HASTAPENAK

6.13.- INGELESAREN HASTAPENAK

6.14.- OSPAKIZUNAK

6.15.-EKINTZA OSAGARRIAK

6.16.- IRTEERAK

6.17.- PASTORALA

6.18. KANPAINAK

6.20.- EBALUAKETA

6.21.- ANIZTASUNERAKO ARRETA

**7.-ETAPAKO FUNTZIONAMENDUA**

7.1.- ELKARBIZITZA ARAUAK

7.2.- ESKOLA ASEGURUA ETA OSASUN ZERBITZUAREN ARAUDIA

7.3.- DATU BASEA

**1.-MARKO ESTRATEGIKOA**

Gure ikastetxeko marko estrategikoaren inguruko informazioa nahi izanez gero, [www.sanviator.es](http://www.sanviator.es) webgunean aurkitu dezakezu.

**1.2.- BERRIKUNTZA PROIEKTUAK HAUR HEZKUNTZAN**

PROIEKTUA	ETAPA	BERRIKUNTZA
<b>PSIKOMOTRIZITATEA</b>	HH	Gaur egun, gure etapako irakasle guztiak adituak dira arlo honetan; psikomotrizitatearen gaineko etengabeko prestakuntza jasotzen ari dira, saioen bitartez, umea babestu eta sor daitezkeen arazoei ahalik eta konponbide eraginkorrenak eskainiz.
<b>MATEMATIKA PROIEKTUA</b>	HH	Gaur egun, etapako irakasle taldea matematikak lantzeko metodologia berri bat jorratzen ari da, besteak beste, Montessori material berriak sortuz. Magdalena Martín-en eskutik formakuntza jasotzen ari dira, matematikan lizentziatua izateaz gainera, Montessori pedagogian eta matematika manipulatioan aditua dena.
<b>INGELESA: ARTIGAL</b>	HH	Ingeleseko irakasle espezifikoa dago etapan, egun Artigal proiektuaren gaineko prestakuntza jasotzen ari dena. Gainera, laguntzaile natibo batekin elkarlanean ari gara.
<b>AURREIDAZKETA</b>	HH	Etapako irakasle bat, metodologia konstruktibista oinarritzat duen proiektu bat garatzen ari da.
<b>URTXINTXA</b>	HH	Etapak argitaletxe honen aldeko apustua egiten du, curriculumaren arabera aurrera eraman behar ditugun helburuak eta edukiak lantzeko modu bikaina delakoan.
<b>INTELIGENTZIA EMOZIONALA</b>	HH	Ipuin bilduma baten laguntzaz, gelan sortutako arazoak eta kezak lantzen dira. Irakasleak Begoña Ibarrolaren laguntzaz formatu dira.
<b>HAMAIKETAKO OSASUNGARRIA</b>	HH	Gailera eman beharrean ogia eta gazta jaten dute
<b>SANVIDIGITALA</b>	HH	Etapako digitalizazioa hasi da
<b>MONTESSORI METODOA</b>	HH	Formakuntzaren ibilbidea hasi da
<b>KALITATEA</b>	IKASTETXE OSOA	Kalitatezko kudeaketaren eta bikaintasunaren Proiektua. Zilarrezko eta urrezko Q-a

## 2.-ORGANIGRAMA

---

❖ **ZUZENDARI OROKORRA**

*César Gonzalez, c.s.v.*

❖ **IKASTETXEKO ZUZENDARIA**

*Andoni Gorospe*

❖ **HH - LH-ko ZUZENDARIA/KOORDINATZAILEA**

*Eli Zubizarreta*

❖ **HAUR HEZKUNTZAKO KOORDINATZAILEA**

*Cristina Rincón*

❖ **HAUR HEZKUNTZAKO TUTOREAK**

*Diana del Hoyo, Jaione Fdz. Betoño, Cristina Rincón, Blanca Mongelos, Eneritz Arza, Sonia Kintana, Nagore Arizmendi, Ainara Urkiza, Katia Ortueta, Saioa Gabilondo, Iraia Sasieta, Kristina Martín*

❖ **PASTORALEKO KOORDINATZAILEA**

*Angel M<sup>a</sup> Ipiña, c.s.v.*

❖ **PSICOLOGIAKO KABINETEA**

*Mertxe Acosta*

❖ **ADMINISTRATZAILEA**

*Roberto Unzalu*

❖ **IDAZKARIA**

*Amaia Lizarduy Martínez*

❖ **ERIZAINA**

*Nerea Merino*

❖ **ATEZAINAK**

*Eduardo Fernández de Leceta  
Ibón Ciriza*

❖ **KIROL ARDURADUNA**

*Pepe Martín*

---

### 3.- ORDUTEGIA

#### ASTELEHENETIK -OSTIRALERA

##### goizez

7:45-9:15 servicio de custodia KITH

9:15-12.55 lectivo

13:00-13:30 servicio de custodia KITH

14:30-15:00 recogida del comedor en la sala de usos multiples

##### arratsaldez:

15:05-16.55 lectivo

- **Anaia-arrebak beti Argentina kaletik**

#### UMEEN GOIZEKO ZAINZA ZERBITZUA / HAURTZAINDEGIA

Ikastetxeak *KITH* enpresaren bidez eskaintzen duen zerbitzua da (eskaera orria ikastetxeko webgunean dago eskuragai). Honako zerbitzua haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako umeentzako zuzendua dago.

#### ERREFORMA EGUNA

Eskola egutegian "*miércoles de reforma*" delakoak zeintzuk diren adierazten da. Asteazken hauetan, irakasleak bilerak edo eta trebakuntza saiok izaten dituzte eta, beraz, ikasleek ez dute klaserik arratsaldez. Jantokira geratzen diren ikasleak jasotzeko ordua 14.30ak izango da.

#### JANTOKIA

Eskolak jantoki zerbitzua dauka eta ikasturte osoan zehar izango da erabilgarri. Arratsaldean klaserik ez dagoen egunetan, umeak 14,30tan jaso beharko dira eskolako sarrera nagusian.

Ume batek jantokian geratu behar duenean, **EZINBESTEKOA** da bai **TUTOREA** eta baita **IKASLEA** ere jakinaren gainean egotea. Jakinarazpena idatziz egin beharko zaio tutoreari, umea jantokian geratuko dela, edo egoeraren arabera, geratuko ez dela adieraziz. Bazkaltzera geratzen diren ikasleek hortzak garbitzeko eskuila eta bazkal ordurako amantala ekarri beharko dituzte, guztia motxila edo poltsa egoki batean gordeta.

Bukatzeke, gogorarazi nahi genizueke jakiren batekin intolerantzia edo alergia arazoak dituzten ikasleek honakoa adierazten eta zehazten duen medikuaren txostena ekarri beharko duela. Aipatutako dokumentazioa administrazioan aurkeztu beharko da.

**Jantoki zerbitzua erabili nahi izanez gero, administrazioarekin harremanetan jarri.**

#### **4.- ZERBITZUAK**

---

Ikastetxeak, gure familiei ahalik eta **arreta gertukoena eta ekintza aukera zabalena** eskaintzeko asmoz, honako zerbitzuak eskaintzen ditu.

**4.1.- Umeen goizeko zaintza zerbitzua:** Egunero eskaintzen da 7.45etik aurrera. "KITH" enpresa da arduraduna.

**4.2.- Jantokia:** Egunero eskaintzen da honako zerbitzua. Hileko azken asteazkenetan 14.30ak arte.

**4.3.- Liburutegia:** Astelehen, astearte eta ostegunetan irekitzen da, 17.30etatik 18.30tara.

**4.4.-Psikologia Kabinetea:** Aldez aurretik hitzordua eskatu behar da.

**4.6.-Erizaintza:** Goiz eta arratsalde. ( ATS- a eskola-orduetan)

**4.7.-Atezaintza:** Egunero, goizeko 8.00tatik arratsaldeko 20.00tara.

**4.8.- Galdutako gauzak:** Atezaintzan galdetu.

**4.9.-Testu liburuen salmenta:** Ikasturtearen hasieran egingo da ikastetxean bertan.

**4.10.-Ikastetxeko kirol arroparen salmenta:** Ikastetxeko kirol arropa ofiziala erosteko aukera.

**4.11.-Guraso Elkartea:** Bazkide izateko urteko kuota bat ordaindu behar da.

**4.12.- Guraso Eskola:** Gurasoentzako formakuntza ikastaroak eskaintzen ditu.

**4.13.-Informazioaren eta komunikazioaren kudeaketarako zerbitzua:** Alexia. Ikastetxearen eta familien arteko harremana hobetzea du helburu.

**4.13.-Udalekuak:** Ekainean eta Uztailan umeak ekintza paregabe bez gozatzeko aukera polita. "KITH" enpresaren eskutik.

**4.14.-Eskolaz kanpoko ekintzak:** Ekintzaren arabera eguna eta ordua ezberdinak izan ohi dira. "STEPS" enpresaren eskutik.

#### **5.- ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK**

---

**5.1.-Kirol eskaintza ugaria:** Adin eta modalitatearen arabera, San Viator Kirol-elkartek ekintza aukera zabala eskaintzen du: kirol-eskolak, eskola-kirola eta kirol federatua futbol, saski-baloia eta xakea.

**5.2.-Ekintza kulturalak:** antzerkia, dantza, hizkuntzak eta marrazketa tailerra, besteak beste.

**5.3.-Scout taldea:** nortasun eta kristau bizipena duen tradizio handiko taldea da ikastetxean. Formakuntza taldeak eta ekintza aukera zabala eskaintzen ditu.

**5.4.-Crisol taldea:** Nortasun eta kristau bizipenaren inguruko formakuntza taldeak.

**5.5.-familia katekesia.**

**5.6.-Meza:** ikastetxeko Kaperan ospatzen da igandero eta jai egunetan eguerdiko 12:30etan. Elizkizunak nahi duen ororentzat irekiak dira

## 6.-HAUR HEZKUNTZAKO PROIEKTUA

---

Gasteizko San Viator ikastetxeko haur hezkuntzako lan taldeak, hiru pilare nagusitan oinarritzen du bere hezkuntza proiektua:

Psikomotrizitatea, Konstruktibismoa eta murgiltze programa (Euskaraz).

### 6.1.- PSIKOMOTRIZITATEA

---

Ikasleek astean behin egiten duten ekintza isolatu bat baino askoz gehiago dela esan genezake. Psikomotrizitatea umearengana gerturatzeko lagunduko digun tresna neurrigabea da. Berari esker, umeak bere garapen sozial, intelektual eta pertsonalerako ezinbestekoak diren oinarriak eraikiko ditu.

Bere bizitzako 7 edo 8 urtez aritu behar da umea jolasean eta mugimenduan ondorengo garapen intelektual, sozial eta pertsonala ahalbidetuko dituen gaitasun sensorio motorea garatzeko.

Gizakiak burmuinaren garapena sustatzen duten ekintzekin gozatu ohi du. Hori horrela izanik, modu natural batean, gure burmuina antolatzen lagunduko diguten sentipenak aurkitzen saiatzen gara. Hori dela eta, umeak mugitu egiten dira, mugituz gozatzen dute, horrek euren **burmuina aberasten baitu**.

Inguruarekiko dituzten erantzunak mentalak baino muskularrak edo motoreak direla esan genezake. Umeak heltzen doazen heinean, erantzun muskular edo motor hauek erantzun sozial edo mentalek ordezkatzeko dituzte pixkanaka.

Hain xumeak diren mugitu, hitz egin edo jolas egin bezalako ekintzak burutzerakoan gauzatzen den integrazio sensoriala, aurrerago idazteko, irakurtzeko edo jarrera egoki bat izateko ezinbestekoa izango den oinarria da. Horrela, umearen lehenengo 7 urteetan prozesu sensorio motoreak ongi antolatuta badaude, umeak erraztasun gehiago izango ditu aurrerago gaitasun sozial eta intelektualak garatzeko.

Umeak bere inguruan gertatzen ari diren gauzen inguruan pentsamenduak edo ideiak eraikiz baino, bere inguruan gertatzen ari dena sentituz bizi dira, eta beraien gorputza sentipen horien arabera mugitzen dute.

Ayres "Integración sensorial"

---



## 6.2.- PSIKOMOTRIZITATEA ETA BIKOTE PEDAGOGIKOA

---

Ikastetxeak, epe luzera, umea modu global edo oso batean ulertzea ahalbidetuko duen lan plangintza eta irizpideekin jarraitzea du helburu. Honek, gizakia osatzen duten dimentsio guztiei arreta jartzea esan nahi du; hala nola, dimentsio intelektuala, emozionala, fisikoa eta espirituala.

Honakoa lantzeko eta lortzeko bidean, psikomotrizitatea ezinbesteko tresna dela esan genezake, umearen dimentsio fisikoa eta psikikoa ulertzen lagunduko baitigu. Psikomotrizitatearen bidez, tutoreak umearen adierazpen motrizaren inguruko informazioa jaso ahal izango du, eta aldi berean, psikomotrizitate saioen bidez, umeak izateko eta bere barrua askatzeko toki ezin hobe bat izango du eskuragai.

Hau dela eta, San Viator ikastetxeak urteak daramatza psikomotrizitatearen inguruko proiektuak jorratzen, bai haur hezkuntzako eta baita lehen hezkuntzako irakasleak formatu eta arlo honetan adituak diren zenbait irakaslerekin modu estuan elkarlanean arituz.

Psikomotrizitatea delako tresna paregabe honen bidez, gure lanean berrikuntzak gehitu eta eskaintzen dugun hezkuntza zerbitzuaren kalitatea hobetzea dugu helburu. Bide horren baitan, "BIKOTE PEDAGOGIKOA" delako zerbitzua gehitu dugu. Zerbitzu honek, ikasle talde txikiei edo/eta indibidualki, gure ikasleei gertuko arreta ematea ahalbidetuko digu.

## 6.3.-KONSTRUKTIBISMOA

---

San Viator ikastetxeko Haur hezkuntzako etapa hiru zutabe nagusitan oinarritzen dela esan genezake, horietako bat Ikaskuntza prozesuaren teoria konstruktibista delarik. Jean Piaget pedagogo eta psikologo suitzarra izan zen teoria honen sortzaile eta gizakiak nola ikasten duen azaltzen digu, hau da, ume baten burmuinean zein prozesu ematen diren kontzeptu berriak barneratzerakoan.

Konstruktibismoaren esanetan, ikaskuntza prozesua ez da kontzeptu berrien transmisio eta pilaketa soila, umeak ezinbesteko parte hartzea izango duen eraikuntza prozesu aktiboa baizik. Honela, gizabanakoa, jaiotzez dituen zenbait gaitasun orokorretatik abiatuz, bere adimena eta errealitatearen inguruko ezaguera eraikiz joango da. Gainera, horretarako modua munduan jokatzeko, aritzea izango da, objektuekin eta egoerekin saiakuntzak eginez eta hauek eraldatuz.

Dena den, objektuekin saiakuntzak egite hutsak ez gaitu zuzenean ikaskuntza prozesura eramango, atzean prozesu mental konplexua baitago. Prozesu honek gizabanakoak aldeztatik dituen ezagutza du oinarri; honela, ezagutza berriak umeak aldeztatik dituenekin liskarrean sartzen ez badira, zuzenean umearen eskema kognitiboan txertatuta izango dira. Baina ezagutza berriak aldeztatik daudenetan euskarririk bilatzen ez badute hauek okerrak direlako, umeak aldeztatik

aurreko eskema hori apurtu beharko du ezagutza berriei txertatzen uzteko. Horrela gertatzen ez bada, ezagutza berriak epe motzeko memoria txertatuko dira, egun batzuen buruan ahazteko.

Aipatu behar da, konstruktibismoak umea bere ikaskuntza prozesuaren egile dela defendatzen duela, baina horrekin ez du esan nahi umeak modu isolatu batean ikasten

duenik. Guztiz kontrakoa, hain zuzen. Beste umeekin eta helduekin interakzioa dagoen egoerak, ezinbestekak ez ezik, umearen ekintza bera bezain garrantzitsuak direla esan genezake. Interakzio egoera hauetan sortzen diren besteen hipotesiak izango dira, hain zuzen, umearen ezagutzen alde aurreko eskema hori balantzan jarriko dutenak, umeari bere ikaskuntza prozesuan aurrera egitea ahalbidetuz.

Honengatik guztiagatik, garrantzitsua deritzogu teoria konstruktibista eta psikomotrizitatearen inguruko aipamen hau egitea. Umeak nola ikasten duen jakitea eta umea garapenaren zein unetan dagoen ulertzea baita ikasgeletan umearen garapen kognitibo, emozional eta soziala errespetatuko duten ekintzak planteatzeko modu bakarra.

#### 6.4- MURGILTZE PROGRAMA

---

San Viator ikastetxeak ikasleak gutxienez hiru hizkuntzatan komunikatzeko konpetenteak izan daitezen lortzea du helburu.

Gure ikasle gehienen ama hizkuntza gaztelania da baina gure gizartean bi hizkuntza ofizial ditugu elkarbizitzan: Euskara eta Gaztelania. Elebitasun egoera aberats bat lortzeko, hizkuntza gutxitua indartu beharko da adin gazteenetatik hasita. Kasu honetan, Euskara indartzea izango dugu helburu. Murgiltze programa beste hizkuntza bat modu sakonean ikasteko modu paregabea dela esan genezake, eta beraz, elebitasunen aberats batera iristeko modu eraginkorra izango da.


San Viatorreko haur hezkuntzako etapak murgiltze programa batean lan egitea du ezaugarri. 2 urtetik 6 urtera bitartean umeen L2-an murgiltze programa sakon bat jartzen da abian. Aipatu dugun bezala, gure ikasle gehienen ama hizkuntza Gaztelania da eta beraz, elebitasun aberats horretara hurbiltzeko asmoz Euskara indartzeko lan egingo dugu.

Umeak bere ama hizkuntza maila gorenean garatua izan beharko du eskolara etortzen hasterako. Chomsky -ren esanetan hizkuntzaren maila honekin umeak gramatika unibertsala delakoa garaturik izango du, beste hizkuntza batzuk ikastea ahalbidetuko dion funtsezko tresna, alegia. San Viator ikastetxean erabiltzen den bezalako murgiltze programetan egin diren ikerketen arabera, umeak 2-3 urterekin lortuko du ekintzetan parte hartzeko beharko duen bere L2-aren maila gorena. 4-5 urterekin, gainera, bigarren hizkuntzaren maila akademiko gorenera hurbiltzen hasiko da.

Haur hezkuntzako etapak umeen ama hizkuntza errespetatzen du, bereziki egokitze aldietan, honek ikasleentzako daukan karga emozionalaren jabe baikara. Gomendagarria litzateke, familiek umei eskolaz kanpo ekintzak Euskaraz egiteko aukera luzatzea, honako hizkuntzaren erabilera ez akademikoa aberastu dezaten (antzerkiak, filmak, marrazki bizidunak, aisialdiarekin lotutako ekintzak e.a.)

### 6.5- NOLA JORRATZEN DUGU PROIEKTUA

---



### **6.6.- UNITATE DIDAKTIKOAK ETA PROIEKTUAK**

---

Gaur egun, Haur hezkuntzako etapak URTXINTXA proiektua erabiltzen du konfiantzazko materialtzat, unitate didaktikoen eta proiektu txikien bidez legeak jasotako helburuak jorratzen ditugularik. Honela, gai bakoitzean ipuin bat izaten da gaiaren ardatz, honen inguruan ekintza eta eduki ezberdinak landuz.

### **6.7.- IRAKURKETA ETA IDAZKETA PROZESUA**

---

Haur hezkuntzako lan taldea hausnarketa sakon bat egiten ari da aurre- idazketa prozesua aurrera eramateko baliagarriak izan daitezkeen metodo ezberdinen inguruan, eta hori gogoan izanik ekiten diogu gure ikasleen prozesua gidatzeari. Urtxintxa proiektua erabiltzen hasi ginenetik, aurre-idazketa prozesua ikuspuntu konstruktibista batetik jorratzen dugu, jada etapan erabiltzen ziren beste hainbat metodologiarekin osatzen eta aberasten saiatzen garelarik.

Egun, haur hezkuntzako lan taldea proiektu bateratu baterako material berriak sortzen ari da.

### **6.8.-PENTSAMENDU LOGIKO MATEMATIKORA HURBILTZEA**

---

Gaur egun, eta proiektu berritzaile gisa, haur hezkuntzan matematikak jorratzeko proiektu berri bat daukagu, irakasle guztiak material eta tresna berriez hornituko dituen. Horretaz gain, Valentziako unibertsitateko irakasle aditu baten prestakuntza jasoko dugu.

Egun, irakasle guztiak material berriak sortzeko eta hauek erabiltzen ikasteko prestakuntza jasotzen ari dira.

### **6.9.- DRAMATIZAZIOA**

---

Haur hezkuntzako zenbait alorretan dramatizazioak daukan garrantzia funtsezkoa da. Aipatu dramatizazioak unitate didaktikoetako ipuinetan izango dute oinarri, unerik gorenena bost urteko gelan guraso eta senitartekoen aurrean antzezlan bat egiterakoan izango delarik.

### **6.10.- TEKNOLOGIA BERRIAK-SANVIDIGITAL**

---

Ikastetxe honen helburu estrategikoetako bat umeen gaitasun teknologikoa garatzea da. *Gadner*-ek eta bere adimen anitzen teoriak adierazten duen moduan, "umeez berez dakarte adimen teknologikoa, baliabideak erraztu besterik ez dizkiegu egin behar".

Ikastetxeak baliabide teknologiko anitz ditu, besteak beste, arbela digitalak, kanoiak, ordenagailu eramangarriak eta geletako ordenagailu finkoak.

### 6.11.- PSIKOMOTRIZITATE SAIOAK

---

Astean behin umeak psikomotrizitate gelara joango dira, psikomotrizitatearen inguruko saio praktiko eta hezgarri bat burutzeko asmoz. Aipatutako saioak 5 une nagusitan egituratuta daudela esan genezake: harrera, pultsio dorrearen suntsiketa, koltxonetetan egiten den jolas sensorio motorea/ jolas sinbolikoa, andereñoak saioa jasotzeko erabiltzen duen unea, eta, azkenik, saioaren adierazpenaren bukaerako unea.

Saioa modu errazago batean garatu ahal izateko, umeek arropa erosoak ekarri beharko dute eta *velcro*du oinetakoak erabili. Eskertuko genizueke umeekin honako saioen inguruan hitz egiten duzuenean, "koltxoneta saioak" edo "psikomotrizitatea" bezalako izenak erabiliko bazenituzte, betiere, "gimnasia" bezalakoak ekidinez.

### 6.12.- MUSIKAREN HASTAPENAK

---

Musika gure hezkuntzaren parte garrantzitsua dela esan genezake. Musikak mezuak helarazten ditu, emozioak sortu eta pentsamenduak adierazten laguntzen digu, batzuetan haserrea eta beste batzuetan poza edo kontsolamendua izan daitezkeelarik.

Oso umetatik musikaz inguraturik bizi gara. Musika eta soinua, soinua eta musika; egunerokotasunean ematen diren ekintza xumeenetan ere musika aurkitu dezakegu: olatuek harkaitzen kontra hausterakoan ateratzen dute hotsa musika izan daiteke, edo txoritxoan kantua, edo ume baten irria e.a. Hauek guztiek erritmoa baitute, armoniaz inguraturik daude eta, beraz, musika aurki dezakegu bertan.

Umeari entzuten erakustea izango dugu helburu. Hau da, ez gara pentagrama edo noten irakurketaren irakaskuntzan oinarrituko. Jolasaren bitartez, umeari bere burua ulertzeko, ulertarazteko eta besteen aurrean adierazteko aukera luzatuko diogu musikaren bidez, erritmoaren zentzua garatuz eta, azkenik, lengoia musikalera iritsiz.

Umeak bere ahotsa instrumentu gisa erabiltzen ikasiko du, bere gorputzaren adierazkortasuna modu jasoago batean landu, keinuen lengoia garatu, dantzatu; ekintzekin gozatu. Esperientzia eta bizipenen bidez, umeak musika ezagutuko du, soinua ezagutu, hauen inguruan ikertu.

Prozesu honetan zehar, umearentzat gertukoak diren soinua erabiltzen saiatuko gara, gure gorputzarekin sor ditzakegun soinua batik bat: txaloak, gure oinekin lurra zanpatzea, txistu egitea e.a. Eta pixkanaka, instrumentuak gehitzen joango gara,

besteak beste, kutxa txinatarrak, xilofonoak, kanpaitxoak, txintzarriak, kriskitinak e.a.

### 6.13.- INGELESAREN HASTAPENAK

---

Azkeneko hamarkadetan gero eta gehiago dira hizkuntza atzerritarrak adin txikietan erakusten hastearen aldeko apustu irmoa egin duten hizkuntzalariak. Hizkuntzen irakaskuntzan jantziak diren hauen ustez, argia baita adin hauetan erakustearen eraginkortasuna, umeei ikasteko duten erraztasunagatik nagusiki.

Hori dela eta, haur hezkuntzako etapan gure ikasleak hizkuntza atzerritar batera hurbiltzeko asmoz lan egiten dugu, kasu honetan Ingelesa. Modu honetan, eskolako egunerokotasunaren barruan, ikasleek ingeleseko zenbait saio izango dituzte, hizkuntza honen bidez ikasturtean zehar aurkeztutako gai ezberdinak jorratzeko aukera izango dutelarik.

#### • SAIOEN IRAUPENA ETA MAIZTASUNA:

Haur hezkuntzan Ingeleseko saioek 30 minutuko iraupena dute. Kurtsoaren arabera, saioen maiztasuna ezberdina izan ohi da:

- **3 urteko geletan** ingeleseko saioak astean bitan izaten dira, guztira astean ordu beteko saioak burutuz.
- **4 urteko geletan** astean ingeleseko 4 saio ematen dira, guztira astean 2 orduko saioak burutuz.
- **5 urteko geletan** astean ingeleseko 5 saio ematen dira, guztira 2.5 orduko saioak burutuz.

#### • METODOLOGIA ETA MATERIALA:

Haur hezkuntzan Ingelesa ipuinen eta abestien bidez lantzen dugu, eta beraz, hauek izaten dira gure tresna eta baliabide nagusi. Gaur egun, bi metodologia erabiltzen ditugu elkarlanean: Mondragón Linguak haur hezkuntzarako daukan materiala eta Josep María Artigalen materiala.

2012/2013 ikasturtean Artigal materiala erabiltzen hasi ginen 3 urteko geletan, esperientzia guztiz aberasgarria izan zelarik. Irakasleok material honen ebaluaketa bat egin ostean, 2013/2014 ikasturterako 4 urteko geletan ere honako materiala sartzea erabaki genuen. Eraitza positiboak ikusita, datorren urteari begira, 5 urteko geletan ere honako materialarekin jarraitzea erabaki dugu. Modu honetan, Artigal materiala izango da gure saioetako erro nagusi, tarteka bestelako ipuin eta abesti osagarriak ere erabiliz.

Aipatutako guztiarekin batera, umeei euren ikaskuntza prozesua aberastuko duten beste zenbait ekintzetan parte hartzeko aukera izango dute. Gure ikasleek

ikasturtean behin, Ingelesez ipuin kontalari bat ikusteko aukera izaten dute. Ekintza honen iraupena ordu bete ingurukoa izan ohi da. Gainera, ikasturtean zehar Ingeles kulturarekin lotutako hiru ospakizun nagusi ospatzen ditugu: *Halloween*, *Gabonak* eta *Easter*. Bukatzeko, ikasleak eskolan ingelesez izaten diren ekintza ezberdinetan parte har dezaten saiatzen gara, gabonetako jaialdian adibidez.

#### • SAIOEN EZAUGARRIAK:

Ingeleseko saioek laburrak, oso egituratuak eta dinamikoak izatea dute ezaugarri. Bai Mondragón Linguako materialak eta baita Artigal materialak ere honako ezaugarriak dituzte komunean saioen egituraketari dagokionez: Ingeleseko saio bakoitza abesti edo jolas labur batekin hasten da. Jarraian, saioaren zatirik mardulena hasten da, normalean ipuina edo istoriotxoak kontatuz. Ipuina kontatu ostean, honekin lotutako fitxak edo *booklet*- a egiten da. Honako fitxak ikasleek ipuina ongi ulertu dutela jakiten lagunduko diguten idatzizko oinarria izango dira. Azkenik, saioa beste ipuin, jolas edo abesti labur batekin bukatuko da.

Honako egitura Ingeleseko saio guztietan edo ia guztietan errepikatzen saiatzen gara, ikaslea gidaturik eta hizkuntza atzeritarra erabiltzeko segurtasunez sentitu dadin.

### *ETA GAINERA ...*

---

#### 6.14.-OSPAKIZUNAK

---

**VIATOR ASTEA:** Gure ikasleentzako oso berezia izan ohi den astea da, Viatotar guztiontzako ospatzen duguna. Ekintza oroigarri asko ospatzen dira.

**EUSKARAREN EGUNA:** Abenduaren 3an ospatzen dugu. Ekintza ugari antolatzen dira, besteak beste, "Txulalai" abestia dantzatzen da.

**KORRIKA:** Bi urtetik behin, eskolak Euskararen aldeko jai erraldoiarekin bat egiten du.

**GABONETAKO JAIALDIA:** Haur hezkuntzako taldeak urtero ilusio handiz prestatzen duen ekintza da. Familia guztiak parte hartzera gonbidatuta zaudete!

**OLENTZERO ETA MARI DOMINGI:** Eskolara etortzen dira bisitan. Gure harrerarik beroena egiten diegu eta ekarritako jostailuekin jolastu.

**ASTE KULTURALA ETA FAROLON:** Ekintza berriz beteriko aste ezberdin bat ospatzen dugu.

**SANTA AGEDA:** Ekintza irekia da, familia guztiak nola abesten dugun ikustera gonbidatuta zaudete.

**INAUTERIAK:** Zuen laguntzari esker mozorroak prestatu eta desfilea ospatzen dugu eskolan.

**DANBORRADA:** Ekintza irekia da, familia guztiak gure patroiz den Prudentzio Deunaren eguneko jaialdira gonbidatuta zaudete.

**5 URTEKOEN GRADUAZIO JAILDIA:** Haur hezkuntzari agur esateko prestatzen dugun ekintza polita eta hunkigarria da. Familia guztiak bertan parte hartzera gonbidatuta zaudete.

#### **6.15.-EKINTZA OSAGARRIAK:**

---

**ANTZERKIA INGELESEZ:** 4 eta 5 urteko ikasleek antzezlan edo ipuin kontalari bat ikusteko aukera izango dute urtero.

**GAZTAINA -SALTZAILEA:** Udazkenarekin estuki loturik, gaztaina saltzailea etorriko da eskolara eta gaztainak dastatzeko aukera izango dugu.

#### **6.16.-IRTEERAK:**

---

**LAPURRIKETA:** Haur hezkuntzako ikasle guztiak baserri batera joango gara ikasturtearen amaiera ospatzera.

**ARTZAIN TXAKUR ESKOLA:** Murgilara joango gara artzain txakur eskola batera. Bertan, artzain txakurrekin, hegaztiekin eta arku tiroarekin lotutako ekintzak egingo dira.

#### **USAMA ETXEALDEA**

#### **6.17.-PASTORALA**

---

Gure ikastetxea kristaua da eta gizon eta emakumeen prestakuntza-proiektua Jesukristo eta bere mezuan oinarritzen du. Beraz, eskola-elkarte honetan bere borondatez sartzea erabaki dutenek jakin badakite identitate hori ezagutu, onartu eta errespetatu behar dutela.

Epe luzera, ikastetxeak zenbait helburu garbi jorratu ditu umearen garapen orokorra bermatzeko. Honek, gizakiaren, kasu honetan gure ikasleen, dimentsio guztietan



arreta jartzea dakar, besteak beste, adimenaren dimentsioa, dimentsio emozionala, fisikoa eta espirituala.

Haur hezkuntzako etapan fedearen erdiespenarekin lotutako hainbat ekintza burutzen dira:

-Fedearen ospakizuna urte sasoi berezietan (Abendua, Garizuma, Pazkoa, Maiatza, Aste Viatortarra).

### **6.18.-KANPAINAK**

---

Ikastetxearen izaera solidarioa dela eta, urtean zehar solidaritatearekin edo giza kontzientziazioarekin lotutako kanpaina ugari antolatzen dira, besteak beste:

›BAKEAREN EGUNA, DOMUND ETA CARITAS.

### **6.19.-EBALUAZIOA ETA PROMOZIOA**

---

#### **•EBALUAZIOA.**

---

Ikasleen ikaskuntza prozesuaren ebaluazioa globala, banakakoa, etengabea eta hezitzailea da. Bertan, irakasle talde osoak parte hartzen du. Ez da jarduera baten emaitza soilik ebaluatzen, baizik eta baita egindako prozesuan eta jardueraren planteamenduan maisu edo andereñoak egindako lana ere. Irakaskuntza ikaskuntza prozesua ebaluatzen da.

Ebaluazioa egitean curriculumean finkatutako helburu hezitzaileak hartzen dira kontuan, baita proiektu curricularrean aipatzen diren ebaluatzeko prozesuari buruzko erabakiak eta planteamenduak ere.

Tutore bakoitzak ebaluaketa hauek guztiak txosten batean bilduko ditu, eta txosten hau familiei helaraziko zaie.

Aipatutako txostena, bakarra izango da ikasturte osoan eta ikasturtearen bukaeran banatuko da. Euskaraz eta Gaztelaniaz idatziko da eta ikasleak Haur Hezkuntzan lortu beharreko gutxieneko helburuak adieraziko dira bertan.

**• PROMOZIOA.**

---

Maila batetik besterako igoera automatikoki egiten da, etapako gutxieneko helburuak betetzen ez dituzten ikasleen kasuan izan ezik.

**6.20. ANIZTASUNARI ERREPARATZEA**

---

***Zertan datza aniztasunari erreparatzea?***

Irakaskuntza "ulerkorrak" aniztasuna bere baitan hartzen du era integratu batean. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako etapetan curriculum bakarra dago. Bertan egokitzapen adierazgarriak egin ahal izango dira. Egokitzapen horiek gelako programazioaren elementu batean edo batzuetan egiten diren aldaketak izango dira, ikasleek dituzten behar berezi adierazgarriei erantzuteko.

Aniztasunari erreparatuz, ikasleak aintzat hartuko dira, bakoitzak dituen beharrak kontuan hartuta, eta benetako hezkuntza hezgarri bat eskaintzen saiatuko gara gure ikasleek dituzten arazoei arreta jarritz. Ikasleek izan ditzaketen arazo edo oztopoen artean, hauek izaten dira ohikoenak: entzumen-urritasuna duten haurrak, ikusmen-urritasuna dutenak, mugimen-urritasuna dutenak, adimen-urritasuna, jarrera arazoak dituztenak, aparteko talentuak e.a.

Horretarako, San Viator ikastetxeak, aniztasunari erreparatuz, Haur Hezkuntzako etapan ikasleei beren beharren arabera eskaini nahi die arreta eta eskolan integratuta sentiarazi, beraien ezaugarri bereziak gainditzeko. Aniztasunari erreparatzeko psikologa bat daukagu Berritzegunekin harremanetan jartzen dena.

## 7.-FUNTZIONAMENDUAREN GAINEKO HAINBAT GAUZA

### 7.1.-FAMILIEKIKO HARREMANA: ELKARBIZITZA ARAUAK

---

Ikasleek ordutegiz kanpoko sarrera eta irteera guztiak atezaintzatik eta atezainaren laguntzarekin egingo dituzte. Familiek debekatuta dute pasabideetara sartzea. Medikura joateko edo bestelako edozein arrazoirengatik eskola utzi behar baduzue, 11.40etatik 12.10tara bitarteko atsedendian eta psikomotrizitateko saioetan zehar izan ez dadin eskatzen dizuegu, oso deserosoa baita une bi hauek eten behar izatea.

Ekintza osagarrietan edo eskolatik kanpo egiten direnetan erabat debekatuta dago ekintza burutzen ari den bitartean senitarteko bat ikasle baten bila etortzea. Une hauetakoren batean ikasleren batek eskola utzi beharko balu, lehendabizi, tutoreari jakinarazi beharko zaio eta, ondoren, irteera atezaintzatik egin.

Hiru urteko ikasleen anaia - arreben irteerei dagokionez, hauek 3 urtekoen atea erabiliko dute beti sarrerak eta irteerak egiteko, nahiz eta senide gazteena eskolara etorri ez. Kasu guztietan, beraz, Argentina kaleko irteera erabili beharko dute.

Ikasleen irteera tutorea ez den irakasle batek burutzen duenean, arreta berezia eta pazientzia izan dezazuen eskertuko genizueke. Tutorea ez den irakasleak ez zaituzte ondo ezagutzen.

Gogoratu, arren, inolako kasuetan atezainaren lana ez dela zuen despistek konpontzen aritzea. Errespetatu bere lana.

Tutoreari egin beharreko jakinarazpen guztiak idatziz egingo dira; hala nola, sarrerak, irteerak, medikuarekin hitzorduak, jantokia ea. bezalako gaiekin lotuak izan ohi direnak. Ohar hauek guztiek, **ikaslearen izena, gela, tutorearen izena eta data argi idatzita izan beharko dute.**

**Ohar garrantzitsua:** jantokira joateko izena emateko edo ez zoaztela jakinarazteko administraziora deitu behar da zuzenean. Aldi berean, tutoreari jakinarazi beharko zaio ikaslea egun horretan jantokira doan edo ez. Inolako kasuan ere, ez da tutorearen eginkizuna izango ikasle baten jantokiarekin lotutako oharrak administraziokoei helaraztea.

Eskolan ikasleak bustitzen direnean aldatu ahal izateko arropa daukagu. Honakoa ikasle guztientzat komuna da eta, beraz, ez da pertsonalizatutako arroparik onartzen. Eskolatik uzten dizuegun arropa lehenbailehen itzul dezazuen eskertuko genizueke.

Entrebistetarako erabili beharreko sarbidea ate nagusia izango da, inoiz ez umeeek erabiltzen duten atea. Elkarrizketak eskolako lan orduen barruan izango dira, tutorearen esku egongo delarik ordu hauetatik kanpo hitzorduak eskaintzea edo ez. Elkarrizketak ikaslearen legezko tutoreekin bakarrik egingo dira. Telefono bidezko elkarrizketak onartzen dira.

Ez gara aterki, kasko, maleta edo antzeko objektuen arduradun egiten, gure eguneroko irakaskuntza jarduna oztopatzen dutela uste baitugu. Objektu trantsizionala onartzen dugu, umearen heldutasunerako garapenean duen garrantziaren jabe baikara. Dena den, honakoa galdu edo hondatuko balitz, ez gara arduradun egiten.

Segurtasun neurriak direla eta, guztiz debekatuta dago eskolako patioa inguratzen duten hesietara hurbildu eta umeekin hitz egitea.

Guztiz debekatutako dago geletara janaria ekartzea edo bertan jatea, urtebetetzeetako bizkotxoak, gailetak eta fruta izan ezik.

Ikasleek ekartzen duten arropa guztiak izena eduki beharko du jarrita, hala nola, oinetakoek, txaketek, berokiek, esku oihalek ea. eta baita gabonetan eta Euskararen egunean erabiltzen ditugun baserritar jantziaren atal ezberdin guztiek ere. Esku oihalak, lepokoak eta txanoak ez dira patiora aterako. Gelako amantalek eta berokiek modu eroso batean eskegitzeko lokarritxo bat izan beharko dute.

Etapako irakaskuntza proiektua eta berarekin lotuta lantzen ditugun unitate didaktikoak aldeztatik erabakita daude eta ez da honakoak aldatzeko edo kentzeko iradokizunik onartuko. Ikaskuntza prozesua Euskaraz bideratua izango da.

Ikasleen karpeta urdina lehenbailehen itzuli beharko da eskolara. Karpeta itzuli ezean, ikasleak ezingo du eskolan egindako lana etxera eraman.

3 urteko geletan derrigorrezkoa den egokitze aldia burutuko da. Bere iraupena, gutxienez, bi asteak izango da 12/2009 hezkuntzako lege dekretuak argi adierazten duen bezala.

Puntualtasuna umearikiko eta irakaslearekiko errespetuaren adierazlea da. Zentzu honetan arduratsuak izan zaitezten eskatzen dizuegu.

#### IKASLEEN SARRERA ETA IRTEERA

Ikasleek, sartzean eta irtetean, patioetako ateak erabiliko dituzte eta, inoiz ez, ate nagusia.

Haur Hezkuntzan, tutoreek ikasleei laguntzen diete bai ikastetxean sartzean bai ateratzean.

### HARREMANA FAMILIEKIN

---

Ikastetxearentzat oso garrantzitsua da eskola-elkartea osatzen duten familiek harreman zuzena eta gertukoa izatea, oinarrizko osagaia baita ikaslearen erabateko heziketa bermatzeko. Etapa honetan, garrantzia handia ematen diogu gai honi eta egunerokotasunean gertutik betetzen saiatzen gara.

Horretarako, honako baliabideak erabiltzen ditugu:

**-FACEBOOK: "SANVI UN LUGAR PARA CRECER ETA IZATEKO LEKU BAT"**

Haur Hezkuntzako familientzako txokoa da. Bertan informazio eta baliabide pedagogikoak aurkituko dituzue, espero dugu zuentzako erabilgarria izatea.

>**ALEXIA**: ikastetxearen inguruko edozein informazio irakurtzeko tresna paregabea.

>**FARO- a**: ikastetxeko aldizkaria da. Bitxikeria gisa, Gasteizko zaharrenetarikoa bat dela esan dezakegu. Gabonetan eta ikasturtearen bukaeran banatuko da.

>**GURASO BILERA**: ikasturtearen hasieran egiten da, gurasoak dagokien gelako tutorearekin.

>**ELKARRIZKETA PERTSONALAK**: irakasleekin, tutoreekin edo zuzendariarekin izan daitezke.

>**GUTUNAK, KOMUNIKATUAK EDO TXOSTENAK**: irakasleak, tutoreak edo zuzendaritzak bidalitakoak izan daitezkeenak.

>**URTEKARIA**: ikasturtearen lehen hiru hilabeteetan ematen zaie familiei.

### HARREMANA

---

Haur hezkuntzako etapan bereziki garrantzitsua da eskolaren eta familien arteko harremana ona izatea; elkarlanean aritzea eta elkarren arteko konfiantza eta gertukotasuna izatea.

Honako elkarlana urte osoan zehar burutu beharko da, familiak eta eskolak ikaskuntza prozesuaren inguruko informazioa eta honekin lotutako erabakietan esku hartzea partekatuz. Modu honetan, umea, eskola eta familiaren artean koherentzia dagoen hezkuntza testuinguru batean hezia izan dadin ahalbidetuko dugu.

Familiak beste guraso batzuekin talde txikiak sortu eta beraiekin zer ikusirik ez duten gaiak buruz hitz egiten aritzea ekidin beharko luketela uste dugu. Egoera askotan jakin gabe hitz egiten baita, eta oso mingarria izan daiteke. Edozein motatako zalantzak edukiz gero, tutorearekin, koordinatzailearekin edo zuzendariarekin hitz egitea da bide zuzena, beharrezkoa izanez gero.

### BILERAK

---

Irakasle taldeak adieraziko ditu familiekin elkartzeko datak. Tutoreek komunikatu baten bidez jakinaraziko diete familiei bilera hauen berri. Normalean, elkartzeko data irailean izaten da; irailaren erdialdean 4 eta 5 urteko umeen familientzat eta irailaren hasieran 3 urteko umeen familientzat.

### ELKARRIZKETAK

---

Gutxienez 3 jakinarazpen egingo zaizkio familia bakoitzari, hala nola, ikasturte hasierako guraso bilera, elkarrizketa bat eta kurtso bukaerako txostena. Horretaz gain, tutoreak beharrezkoak ikusten dituen beste nahi adina komunikazio egiteko aukera izango du.

*Tutoreak*, idatziz, beharrezkoak ikusten dituen adina jakinarazpen egin ahal izango ditu ikasturtean zehar. Gutxienez, jakinarazpen bat egin beharko du.

*Familiak*. Elkarrizketa bat eskatu nahi izanez gero, ikasleen bidez ohar idatzi bat helarazi beharko diete elkarrizketatu nahi duten irakasleari.

*Zuzendaritzan, Administrazioan eta ikastetxeko beste zerbitzuetan* ikasturtearen hasieran zehaztutako arreta ordutegia betetzen da. Ordutegi hori FARO astekarian argitaratzen da ikasturtearen hasieran.

### BOLETINAK

---

3, 4 eta 5 urte: txosten bat emango da ikasturte bukaeran Alexia bidez, ikusi ahal izango duzue "SEME/ALABAK", "KALIFIKAZIOAK", "BOLETINAK" sailean azkeneko eguntik aurrera

### OHARRAK IDATZIZ EMAN

---

Sarreran irakasleen lana ahalik eta gutxien oztopatzeko asmoz, oharrak idatziz ematea komeni da. Idatziak tutoreari helarazi behar zaizkio zuzenean, atezaintzan edo administrazioan utzi edo beste irakasleei emanaz gero, tutoreak oharra ez jasotzeko arriskua baitago.

## ALEXIA

---

Alexia familiekin harremanetan egoteko bide bikaina dela esan genezake eta haur hezkuntzako etapak, bere izaera berritzailea tarteko, familiekin harreman estua mantentzen du tresna honen bidez. Gure aholkua Alexiako pasahitzak eguneratuta izatea da eta bertako mezuak sarri begiratzea, ohar guztien jakinaren gainean egon zaitezten.

## IKASLEEK ETXERA ERAMANGO DUTEN MATERIALA

---

Hilabete bukaeran, ikasle bakoitzak gelan landutako lanak, fitxak, ipuinak eta bestelako eskulanak eramango ditu etxera karpetan. Hiru hilabete bukaeran, aipatutako lanez gainera, Ingeleseko lanak ere etxera eramango dira. Oso garrantzitsua da umearentzat bere gertuko senitarteko eskolan egindako lana baloratzen dutela eta honenganako interesa dutela adieraztea.

## IKASLEEK ETXETIK EKARRITAKO GAUZAK

---

Umeak bere heldutasunerako ibilbidean zehar behar duen eta gordetzen duen objektu txiki horri "objektu trantsizionala" deritzaio. Umeak jaio berriak direnean, aipatutako "objektu trantsizionala" pelutxe txikiak edo oihalak izan ohi dira. Haur hezkuntzako maila honetako umei dagokienez, "objektu trantsizionala" umeak etxetik eskolara eta eskolatik etxera ekartzen dituen objektuak izaten dira. Guztiz oinarritzat da eskolan prozesu hau onartzea eta dagokion lekua ematea ikasleentzako garapenerako.

Argitu behar da, ez garela jostailu hutsez ari; objektu txikiez, panpintxoez, margo pusketez e.a. baizik. Eskola eta etxea diren bi munduen arteko lotura ahalbidetzen duten objektu horiei buruz ari gara, egokitzaia ahalbidetzen lagunduko dutenak.

## NOLA JANTZI: AMANTALA ETA ARROPA EROSOA

---

Haurrek **arropa eroso** ekarri beharko dute eskolara, botoi- dun jantziak, petoak, tiranteak e.a. saihestuz. Modu honetan, umeari errazagoa egingo zaio modu autonomoan jardutea eta lehenago ikasiko du komunera bakarrik joaten. Aipatutako guztiaz gain:

-Ikasle bakoitzak marra txuri urdin- dun amantala bat ekarri beharko du, bere izen eta guzti. Ostiralero, amantalak etxera eramango dira garbitzeko. Amantala guztiek eskegi- tokian zintzilikatu ahal izateko lokarri bat izango dute.

-Gaizki ulertuak saihesteko asmoz, haurrek arropa (bereziki berokiak, jertseak, esku larruak, txanoak e.a. ) beren izenez markaturik ekarri behar dute.

- Umeek etxetik ekarritako arropa galdu edo nahastuz gero eskolak ez du ardura hori bere gain hartuko.

-Egoeraren batean ikasleei eskolako arropa jartzen bazaie, familiak arropa hau ikastetxera itzuli beharko du, garbiturik eta ahalik eta eperik laburrenean.

-Neguan ez dituzue umeak gehiegi jantzi behar gelan egoteko.

-Erosotasun arrazoiak tarteko, hainbat jarduera burutu ahal izateko *velcro*- dun oinetakoak, hau da, lokarririk gabekoak, ekarri beharko dituzte. Jantzi eta erantzteko errazak diren oinetakoak, alegia.

-Jantokian gelditzen direnek hortzetako eskuila, hortzetako pasta eta amantala bat ekarriko dituzte poltsa edo motxila egoki batean sartuta.

### PSIKOMOTRIZITATE SAIOETARAKO ARROPA

---

Oso garrantzitsua deritzogu umeak eskolara ekarri beharreko arroparen aukeraketa errespetatzea, baina bereziki garrantzitsua, psikomotrizitate egunetarako. Ume bakar batek lokarridun oinetakoak ekartzeak talde osoaren segurtasunean eta funtzionamendu egokian eragiten du, andereñoa lokarriak lotzen ari den bitartean talde osoarekiko begirada eta kontrola galtzen baititu. Beraz, ezinbestekotzat deritzogu *velcro*- dun oinetakoen erabilera.

### URTEBETETZEAK ETA HAMAIKETAKOAK

---

Litxarreriarik eta oparirik gabeko urtebetetzeak ospatzen ditugu. Ikastetxean lantzen den zeharkako gaietako bat "kontsumorako hezkuntza" da. Hori dela eta, omenduak bizkotxoak ekar dezala gomendatzen dugu.

Bestelako ospakizuna egiteko asmoa izatekotan, gonbidapenak gelaz kanpo egin beharko dira zenbait haurren diskriminazioak saihesteko.

Txikiekin edozein jarduera da baliagarria balioetan hezteko. Hori dela eta, hamaiketako egiteko uneari ahalik eta etekin gehien ateratzen saiatzen gara. Izan ere, oso aproposa da elkar- banatzeko ohitura indartzeko, amore ematen ikasteko, nor bere aldia itzaroteko, higiene ohiturak lantzeko, janariarekiko estimua suspertzeko e.a.

### HAMAIKETAKO OSASUNGARRIA

---

Ikasleek, tarteka, txartel bat eramango dute etxera. Bertan, adierazita egongo da eskolara gailetak, esku oihalak edo fruta edo beste zerbait ekarri beharko dituzten. Eskertuko genuke eskatutakoa lehenbailehen ekarriko bazenute.

---



## 7.2.- OSASUN ZERBITZUAREN ARAUDIA

---

Haur Hezkuntzako ikasleek istripuen kontrako aseguruak eta erantzukizun zibileko aseguruak dituzte. Eskolako erizaintzan behar bezala sendatu ezin daitezkeen istripuen zauri edo ondorioak Quirón erietxera bideratuko dira. Umeen aseguruak, ikasgelan ematen diren ekintza guztien ardura hartzen du bere gain, eskolatik kanpo ematen diren ekintzena bezalaxe.

Aipatu behar da, dena den, polizaren estaldurak zenbait muga dituela eta mediku arretoa Quirón erietxean eskainiko da, betiere ikastetxeko parte eramanaz gero. Poliza honek puskatutako betaurrekoen eta hortzetako aparatuen gastuen ardurarik hartzen du. Umeek hortzen bat apurtzen badute, dentista batera joateko aukera emango zaie, ondoren zerbitzuaren ordainagiria administrazioan aurkeztuz.

Eskolako osasun programa:

Eskolako erizaintza kabineteak oinarrizko mediku arretoa, Osakidetza proposatutako txerto programa eta entzumenaren eta ikusmenaren kontrola eskaintzen ditu ikasturtean zehar.

2. mailako ikasleei, 4 urtekoei alegia, ikasturte honetan dagokien "Hirukoitz birika" delako txertoa jarriko zaie. Honako txertoak jarri aurretik, familiei denborarekin jakinaraziko zaie, beharrezkoak diren dokumentu ezberdinak prest izan ditzaten (gurasoen sinadura daukan dokumentua, osasun txartela e.a.)

Ume bat gaixotzen denena, normalean, eskola batek eskaini ezin dizkion arretoa eta baliabideak behar izaten ditu pixkanaka sendatzen joateko. Hori dela eta, umeak gaixorik daudenean etxean gera daitezkeen eskatzen dizuegu, eskolara ekartzeak sendatze prozesua luzatu eta ekidin daitezkeen kutsadurak sor baititzake. Ikasle bat gaixorik etxean geratzen bada tutoreari jakinarazi beharko zaio, gaixotasunaren inguruko oharrak emanez. Eskolara bueltatzeko, umeak pediatraren oniritzia izan dezan komeni da.

Hurrengo kasuetako batean egonez gero, ez dugu umea eskolara ekartzerik ahokutzen:

-Sukarra.Beherakoa.Azaleko negalak, medikuak kutsakorak ez direla esaten duen kasuetan izan ezik.Konjuntibitis.Zizareak edo esteetako parasitoak.Botagura.Zorriak edo hauen bartzak.Barizela, hazizurriak, errubeola, elgorria e.a. eskolara bueltatzeko pediatraren baimena izan arte.

Ikasturtean zehar osasun arazo berriren bat sortuko balitz, alergiaren bat adibidez, lehenbailehen tutoreari jakinarazteko eskatuko genizueke.

Benetan garrantzitsua deritzogu eta azpimarratu nahi dugu, guztiz **osasuntsu ez dauden umeak etxean geratzea komeni dela.**

*MUGIKORTASUN ARAZO ZEHATZAK DAUDEN KASUETAN JARRAITU BEHARREKO  
PROTOKOLOA HAUR HEZKUNTZAN*

---

Ikastetxeak ez dauka haur hezkuntzako ikasleek izan ditzaketen behin behineko mugikortasun arazoei aurre egiteko baliabide egokirik. Gainera, berritze guneak ez du inolako laguntzarik eskaintzen honelako kasuetarako.




Hori dela eta, jasotako laguntza ezagatik, ikastetxearen baliabide faltagatik, kasu hauetan umeei beraien kabuz moldatzeko izaten dituzten arazoengatik eta etapa honetan geletan daukagun dinamika motarengatik, egokiena kasu hauetan ikasleak eskolara ez etortzea dela uste dugu. Bide batez, gogoratu nahi dizuegu gurasoek erabat debekatuta dutela ikastetxeko geletan egotea.

